



**«Egunaren arabera,  
euskaldunagoa edo  
australiarragoa naiz»**



# Miren Goikoetxea

• PERTSONAIA •

Australian jaiotako euskalduna dela jakin dut. Neska gaztea eta Bermeoko euskara egiten duena. Aurkitu dut haren aztarna. Jo diot telefonoa, zehaztu dugu hitzordua.

Australiako euskaldunen berri dakarren liburua aztertu dut elkarrizketa baino lehen: *Azúcar amargo. Vida y fortuna de los cortadores de caña italianos y vascos en la Australia tropical*. Okerreko liburua. Iparraldeko Queensland-era jo zuten euskaldunak dira bertan protagonista. Miren Goikoetxea, aldiz, hegoaldera, Sidneyra jo zuten euskaldun bakanen alaba da.

**MIEL A. ELUSTONDO**

Argazkiak: Zaldi Ero

**Miren Goikoetxea Gangoiti, australiarra, euskalduna!**

Gure gurasoak 1965ean joan ziren Australiara bizitzen. Arrantzalea zen aita, Bermeokoa. Afrikan-eta ibiltzen zen arrantzan. Lau urte ezkondua, eta amak esan omen zion: “Ez zaitut inoiz bere ikusten!”. Ordurako, amak ahizpa bat zeukan Australian bizitzen eta hark esan zien: “Hemen beharra dago. Gura badozue behar egin, etorri, dirua egiten da”. Garai hartan, bestalde, Australiako Gobernuak bazuen lege bat, kontratu moduko bat, kanpotik zihoazen senar-emazteentzat. Bisatuak eta gainerakoak ematen zizkien eta, ordainetan, bi urte egin behar zuen bikoteak Australian. “Proba egingo dogu!”, esan zuten gure gurasoek.

## Nortasun agiria

Miren Goikoetxea Gangoiti (Sidney, 1976). 60ko hamarkadan Bermeotik (Bizkaia) Sidneyra emigratu zutenak ditu guraso: Jose Mari eta Josefina. Australian eskolatu zen eta australiar peto izango genuen, gurasoen euskal gogoa gabe. Euskaraz hazi zuten etxean, eta etxean euskaraz mintza zedin saiatu ziren gurasoak. Hizkuntz politika horri esker da euskaradun gaur egun Miren. Unibertsitatean, Espainiako Historia eta Frantses Hizkuntza ikasi zituen. Gaztea izanagatik, Sidneyn, Bartzelonan eta Istanbulen bizia da, eta Gasteizen da orain, senarrarekin eta Mark eta Tomas semeekin, baina ez dago jakiterik bertan iraungo ote duten. “Mugitzea gustatzen zaigu!”, dio.

Australian eta Euskal Herrian zangalatraba bizi ditu gurasoak, eta Sidneyn du neba, Jose edo Joseba, bertako Gure Txoko euskal etxeko idazkari.



### Horrela izan zen, beraz...

Bai. Lehenengo, fabrika egin zuen behar gure aitak, Sidney. Morris autoa egiten zuten lantegian. Fabrika hartan eta bulegoak-eta garbitzen egiten zuen behar aitak. Gure amak, denetako garbiketara lanak: etxeak, bulegoak...

***Azúcar amargo*** liburuak Queensland-era joan ziren euskaldunen historia kontatzen du. Kanabera ebakitzen joan ziren eta nahiko kolonia handia osatu zuten. Sidneyra joan zirenen gainekorik ez dakit.

Australiako Gobernuak jendez bete gura izan zuen herri hura. Jendea behar zuen. Horregatik jarri zuten martxan bisatuen zera hori. Jende gaztea gura izan du, senar-emazteak, behar egiteko gogoia dutenak... Ez abokatu, mediku eta horrelakoak. Hala joan ziren nire gurasoak. Gure amak beti kontatzen du urte bi egon dela negarrez: Bermeoren falta, beraren aitte eta amatxoren falta!

### Bermeotarrak Sidney.

Askorik ere ez daude. Hiru, lau, bost?, ezagutzen ditut nik, "Txoko" bueltan. Lekeitiar gehiago dagoela pentsatzen dut. Bilbotarrak ere gehiago...

Bai. Ehun pertsona inguru izango dira bertako sozio. Sidney ez daude horrenbeste euskaldun. Gure amak beti esaten zuen erdaldun lagun gehiago eduki dituztela. Lehenengo, gure gurasoak Paddington auzoan egon ziren bizitzen, jende pobrearen alderdian. Emigrante denak hantxe bizi ziren. Esate baterako, gurasoak kale jakin bateko 12. zenbakian egon ziren bizitzen. Bada, 14an sevillarrak bizi ziren, eta 16an gailegoak edo asturiarrak ziren, ez dakit. Hiru familiak bata bestearen atzean. Gurasoek ondoko horiek izan dituzte lagun handienak. Gaur egun, Paddington aberatsen lekua da. Beti pasatzen dena. Lehen, jende umila bizi zena, orain, aberatsena...

### Gure Txokora joaten diren euskaldunetakoak zarete?

Bai. 1966koa dela pentsatzen dut Gure Txoko. Txiki-txikitatik joan izan gara bertara. Gabonak pasatzen; Gabon zaharra eta Urte Berria. Domekan-domekan, bertan. Urtean hiru bider edo egiten dute jaia han. Sidneyko Gure Txoko etxe txikitxoak da, solairu bikoa. Badauka frontoia ere eta pilota txapelketak egin izan dira. Baina orain ez, belaunaldi hori hil da, edo zaharrak dira eta ezin dute jokatu. Orain bestelako jendea dabil han. Sidneyra



joaten diren euskaldunek, izan aldi baterako, beharrez, edo Australian ikusten, Txokotik buelta egiten dute; denek. Geraleku derrigorra da ia-ia. Pentsatzen dut euskarazko eskolak ere ematen dituztela. Ez dira ikasle asko, baina hamar bat edo bai. Nire neba ere bertara joaten da, astean baten edo. Akordatzeko naiz, batean, dantza erakusten hasi ziren, eta nire ama ikasten hasi zen: dantza ikasten, 68 urterekin! Ondo pasatu zuen.

### Dakidanez, aberri eguna ospatzen dute Sidneyko euskaldunek.

Sidney "Gernikako arbola" dago, Gernikako arbola ez bada ere. Baina hala esaten diote. Haren azpian egiten da aberri eguna. Olentzero datorrenean ere, hantxe barbakoa, eta umeak korruan...

### Gernikako arbola Sidney. Horrelakorik egundo entzun gabe nengo.

Bertako arbola bat da, handia, parke handi batean, Centennial Park-en. Gabonak baino apur bat lehenago egiten da jaja.

### Australian jaioa zara. Euskalduntzat daukazu zeure burua, ala australiartzat?

Egunaren arabera. Batean euskaldunagoa, bestean australiaragoa. Pentsatzen dut aus-

## Istanbul-Gasteiz

"Hamar milioi pertsona bizi dira Istanbulen. Nire gizonak ordu bat eta erdi, bi ordu behar izan du beharrera ailegatzeko. Hemen, Gasteizen, hamabost minutu, trafikoa dagoenean! Trafikorik ez dabilenean, hamar! Pozik dago gizona. Hurrean dauka beharra eta etxera etortzen da eguerdian. Orain arte egundo ere ez da etorri nire gizona eguerdian etxera! Orain bai, etorri eta jan egiten du, eta arin jaten badu, lo kuluxka ere egiten du. Oso diferentea da hau".

traliarragoa topatzen dudala nire burua. Urte gehiago pasatu ditut bertan. Nahiz eta aitteamak euskaldunak izan, Euskal Herria hau eta hori dela esan... bertan jaiokera, eta bertan bizieran, australiaragoa naizela pentsatzen dut. Nire lagunak ikusi, australiarrak, eta esaten dut: "Ni ez naiz horrelakoa, ni diferentea naiz". Ez dut topatzen kutxa bat non nire burua sartu. Hain australiarra ere ez naiz.

### Identitate arazorik ez duzu...

Ez, nik lo trankil egiten dut! Kar, kar, kar... Badakit aita-amak nongoak diren, badakit aitita-amamak, osaba-izekoak, lehengusu-

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak: .....

Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....

Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....

N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....

Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloiez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: .....

Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....

Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefona: .....

Entitatea: ..... Sukurtsala: ..... K.D.: ..... Kontu zenbakia: .....

Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

**Aukeratu ongi etorri oparia**

"Kirolaz Badakit" mahai-jolasa

"888 txiste" liburua

"Txoriak-txori" lamina

%25eko beherapena ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian  
165 € Ipar Euskal Herrian

**ARGIA**

ARGIA

15

## ● Miren Goikoetxea

lehengusinak... nongoak diren. Bermeora sarri-sarri etorri naiz, udak bertan pasatu ditut –hiru edo lau urtetik behin–, fantastikoa topatzen dut, baina Australia diferentea da, hango bizimodua eta.

### Euskaraz guk bezalaxe hitz egiten duen australiarra...

Hala gura izan dute gurasoek. Gure etxea “Bermeo Txiki” izan da. Etxean euskaraz egin dadin gura izan dute. Euskara izan da euren berba. Kultura, euskalduna. Aitak beti esan izan du: “Atetik barrura, euskaraz. Ateetik kanpora, zuk gura dozuna”. Eta amak ere berdin. Neba eta biok ingelesez hasiz gero, aittak: “E!, etxean euskaraz! Kanpoan, gura dozuena!”. Eta horrelaxe ikasi dut. Nik euskaraz egiten dut, etxekoa. Euskara baino, bermeotarra egiten dut berba nik. Gure aitita –amaren aita– hil zenean, ni txikia nintzenean, amama Australiara etorri zen bizitzen. Gurekin bizi izan zen hil arte, eta harekin ere euskaraz egiten nuen. Gero, amama ere hil zen, Australian, baina atzera Bermeora ekarri zuten, enterratzera.

### Australiar jaiotza eta hazia, gurasoekin ingelesa ez beste hizkuntza batean berba egiten zenuena... Nola hartzen zuten hori zure lagunek?

Total normala da hori han. Australian denak dira beste leku batzuetatik joandakoak. Nire koinata –nebaren andrea–, greziar jatorrikoa da; gurasoak greziarrak. Nire eskolako lagunak, denetakoak: bat libanoarra, beste bat italiarra, beste bat indiarra... Nahaste handia da. Nik berba bat egin dut etxean aita-amekin, baina nire lagunek ez diote horri batere

inportantziarik eman, ze eurek ere beste berba bat egin izan dute etxean.

### Horixe hizkuntza festa...

Problema berdina daukat nire umeekin orain-txe. Ingelesez egiten dut eurekin. Gizonak, gaztelaniaz. Turkian egon gara bizitzen eta han turkieraz egin izan diete. Guk jakin dugu etxean aita-amekin beti behar izan dugula euskaraz egin. Beti. Hori klaru izan da. Euren lagunekin, izan espainolak edo Hego Amerika-koak, gaztelaniaz. Gurasoekin euskaraz, euren lagunekin gaztelaniaz, eta gure lagunekin eta kalean, ingelesez...

### Hizkuntza eta kultura ezberdinak bata bestearen ondoan bizi izan dituzu Sidney: ohiturak, jaiak, janariak...

Bai. Lagun indiarren etxera joaten nintzen eta beti usaintxo hori, jatekoarena. Ez usain txarra, baina arraroa. Hark ere berdin esango zuen, gure etxean usain arraroa zegoela, bakailoarena edo. Bakoitzaren etxean usain

## Geroa Sidneyn

“Orain dela zortzi urte Gaztemundura etorri nintzen. Hiru lagun etorri ginen Sidneyko Gure Txokotik. Argentinatik, berrogei gazte, eta guretik hiru! Asko ere ez gara Sidneyn. Gure Txoko txikitxo da, zaharrak dira gehienak. Asko, inoiz ezkondu ez direnak, Australiara emigrazio garaian joandakoak. Orain ez dago emigraziorik. Orain euskaldunak joaten dira, bi edo hiru urte egin, beharrean, eta kito. Lehengo euskaldunak gero eta zaharragoak dira, gazterik ez... Problema izango da laster, Gure Txokorekin zer egin”.



## AZKEN HITZA

### Judimendi

“Orain dela hilabete edo, Judimendiko jaiak izan dira Gasteizen. Amaginarrebarekin eta umeekin joan nintzen bertara. Eta jendea, plaza batean, dantzan, bertako musikarekin. Trikitixa. Amaginarrebak pentsatu du hau herri txikitxo dela. Baina ez da herri txikia, Gasteiz da, hiria”.

### Etxeko Babela

“Aitak gaztelaniaz egiten die umeei. Nik, ingelesez. Eskolan, goizean gaztelaniaz eta arratsaldean ingelesez ikasten dute, eta astean lau ordu, euskaraz. Nire gurasoek gaztelaniaz egiten diote gure seme zaharrenari, baina euskaraz txikiari... Bermeora noan bakoitzean, osaba-izekok entzun zelan egiten diedan umeei ingelesez eta esaten didate: ‘Ez zara lotsatuten! Euskaraz egin behar dozu zuk hemen umeekaz!’. Ikasiko dute... Ingelesa mundu guztian ibiltzeko behar dute. Eta guretzat, hainbeste mugitzen garenez, inportanteago da ingelesa, euskara baino. Euskara bertoko hizkuntza da, fantastikoa, baina etxean bat egin beharra daukat. Gainera, nik umeen kankak-eta ingelesez dakizkit, ez euskaraz –baten bat, beharbada–, ez gaztelaniaz. Ezin diet umeei euskaraz kantatu!”.

diferentea zegoen, bakoitzaren amak egiten zuen janariarena. Diote, Australian bizi direnen artean, laurdena kanpoan jaiotakoa dela. Emigratio kontua da han nagusi.

**Emigranteak zure gurasoak, emigrantea zure senarra. Katalana duzu.**

Han ezagutu nuen. Bost-sei urte zeramatzan Australian beharrean, Espainiako enbaxadak Sidneyn duen merkataritza bulegoan. Gero, Sidneytik Bartzelonara etorri ginen, bertan bizitzeko esperantzan. Urtebete egon ginen han. Ondoren, “ezkondu egingo gara!” esan eta Bermeon ezkondu ginen. Handik hilabetera, Turkian geunden, Istanbulen, senarra hara bidali zuten eta, beharrean.

**Sidney, Bartzelona, Istanbul... Gasteiz orain...**

Eta gero ez dakigu! Lau hilabete egin ditugu hemen. Probatzen ari gara. Gu ez gara hemengoak, ez gara Gasteizkoak. Ez dakigu gustatuko zaigun, ez zaigun. Umeak pozik dabilta, Mark eskolan eta Tomas haurtzaindegian, eta hori oso ona da. Gizonaren beharra berria da oraindik, hemen ez daukagu lagunik apenas, eta hor gabiltza. Gutxika-gutxika ohitzen ari gara, leku berriak ikusten, umeekin bertan zer egin litekeen ikasten... Artium-era joan, erakusketak ikusi, bertan margotu... Urtebetean probatu egingo dugu. Gustatzen bazaigu, bertan erosiko dugu etxea. Baina gerokorik ez dakigu. Gainera, mugitzea gustatzen zaigu.

**Sidney, Bartzelona.**

Ez zen hainbesteko kontrasterik izan.

**Sidney, Istanbul.**

Beste planeta bat da. Jendea jator-jatorra izan da, hori bai. Ezagutu gabeko jendea, eta segidan esaten ziguten: “Etorri gure etxera afari jaten!”, “etorri gure etxera kafe bat hartzen!”. Nik, “Ez zaitut ezagutzen eta, nola joango naiz zure etxera?”. Lagun moduan, Turkian ezagutu dugu jenderik onena. Batzuetan larregi ere bazen. Han txoratuta daude umeekin. Gauzarik inportanteena umeak dira eurentzat. Bazoz kaletik, zeure umearekin, eta jendea geratu eta: “Aizu, zergatik ez darama txapela zure umeak?”. “Eta zergatik eraman behar du, ba, 22 gradu daude eta!”. “Bai, baina haizea dabil, eta baliteke min egitea belarrian”. Horrela! Larregi kezkatzen dira. Azkenean, kasurik ere ez nien egiten. Aurrera segitu eta kito. Beste batean... nire ume biak zuri-zuriak dira, nire modukoak, eta zain guztiak ikusten zaizkie. Etorri da bat eta: “Zure umeak zirkulazio problema dauka”. Nik: “Mediku zara? Hile bi dauka umeak eta zuri-zuria da. Zainak ikusten zaizkiola eta, zer gura duzu?”. Larregi sartzen dira besteren bizimoduan!

**Turkian, beste hizkuntza bat: turkiera.**

Apur bat ikasi nuen. Sei hilabete egon naiz ikasten. Han ezin izan nuen beharrik egin, legeak ez zidan uzten. Baina ingelesez eskolak ematen ibili nintzen, bost urteko umei [begiak goratu ditu, puzka].

**Zer esan nahi du keinu horrek?**

Nik turkiera gehiago ikasi dut, umeek ingelesa baino!

**Bost urte bizi izanak zarete zuek han.**

Bai, bost urte nahiko da Istanbulen. Total polita da. Egun batzuk pasatzen joateko, polita. Gu bakarrik egon gara bertan. Umeak laguntza barik eduki ditugu. Bi amamak umeak jaio zirenean etorri ziren, besterik ez. Eta umeak beti nirekin, beti nirekin... Bada esaera bat: “Herriak hazten du umea”.

**“Herriak hazten du umea”.**

Esaera da ingelesezkoa: *It takes a village to raise a child*. Nik uste dut egia dela esaera hori. Nire lagunek ere, Bermeon, beti esaten dute umea trankil uzten dutela kalean, badakitela denek begiratuko dutela umea, ezagutzen zaituztela zu, eta ezagutzen dutela zure umea. Baina eza-gutzen ez zaituzten herri batean, umeak beti amarekin. Hala esaten diete gure umei, *amitis* dutela, ama-mina, beti daudelako nirekin. Normal! Aita egun osoan lanean, aitaita-amamarik, batere ez. Osaba-izekorik batere ez... Norekin egongo dira ba, amarekin ez bada? ■